

(Ohar hau berrikusi egin da, zabaltzeko datuen prestaketan akats bat egon delako)

Euskal Administrazioetako diru-sarrerak %0,3 gehitu ziren 2015ean, eta gastuak %1,6

BEZ zerga bidezko sarreren %37,6 da, eta PFEF %34,8, 2015ean

Euskal Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udal Administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko eta azpiko erakundeekin batera) diru-sarrera sendotuak -16.618 milioi- %0,3 gehitu ziren 2015ean aurreko urtearen aldean, Eustaten arabera. Gastuak, 16.438 milioi (%+1,6); sarrerak 180 milioi gastuen gainetik.

Diru-sarrera ez-finantzarioak %0,1 gehitu ziren eta gastuak %0,5; ondorioz, Aurrekontu saldo ez-finantzarioa 2014ko -35 milioitik 2015eko -102ra pasatu da.

20

Finantza-eragiketengatik: diru-sarrerak %+3,3 (1.531 milioi guztira); gastuak %+16,8 (1.249).

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2014-2015


mila euro	2014	2015	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	16.560.959	16.618.041	0,3%
Eragiketa Arruntak	14.658.236	14.897.509	1,6%
-Zerga Sarrerak	13.111.861	13.310.641	1,5%
PFEZ	4.405.555	4.626.009	5,0%
Sozietate-zerga	1.189.093	1.040.446	-12,5%
BEZ	4.943.387	4.997.576	1,1%
Zerga Bereziak	1.354.121	1.374.078	1,5%
Udal-zergak	694.869	710.464	2,2%
Bestelako Zergak	524.836	562.068	7,1%
-Bestelako sarrera arruntak	1.546.375	1.586.868	2,6%
Kapital-eragiketak	419.767	189.365	-54,9%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	15.078.003	15.086.874	0,1%
Finantza-eragiketak	1.482.956	1.531.167	3,3%
GASTUAK GUZTIRA	16.182.451	16.438.340	1,6%
Eragiketa Arruntak	13.463.324	13.777.475	2,3%
Langileria Gastuak	3.415.613	3.500.838	2,5%
Transferentzia Arruntak	4.570.304	4.776.155	4,5%
Bestelako Gastu Arruntak	5.477.407	5.500.482	0,4%
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.649.566	1.411.501	-14,4%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	15.112.890	15.188.976	0,5%
Finantza-eragiketak	1.069.561	1.249.364	16,8%
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.194.912	1.120.034	-6,3%
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	-34.887	-102.102	-

Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak

Diru-sarrera ez-finantzarioen hazkuntza ohikoei zor zaie (%+1,6); sarrera guztien %90 ia dira. Kapital eragiketengatik, sarrerak %54,9 jaitsi.

Zerga-sarrerak (sarrera guztien %80) %1,5 gehitu ziren 2015ean; PFEF aipatu behar, bigarren bolumenagatik eta hazkuntzagatik (%5). BEZ sarrerak (sarrera handienak) %1,1 gehitu; zerga sarreraren %37,6 2015ean. Zerga Bereziak, hirugarren, %1,5 gehitu; zerga sarreraren %10 dira. Udal zergak %2,2 gehitu eta Beste Zergak %7,1. Sozietateen Zerga %12,5 jaitsi zen, jaitsitako bakarra.

1. grafikoa. Euska administrazioen zerga sarreraren banaketa (%). 2015



Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak

Ohiko beste sarrerak, ohiko guztien %11, %2,6 gehitu.

Gastu ez-finantzario ohikoak %2,3 gehitu. Langile gastuak %2,5 gehitu; gastu guztiaren %21,3 dira. Ohiko transferentziak -gastu guztiaren %29,1- %4,5 gehitu 2014aren aldean. Ohiko beste gastuak %0,4 gehitu.

Gastuak Inbertsioetan eta Kapital transferentzietan %14,4 jaitsi (-238 milioi) 2014aren aldean; guztiaren %8,6 dira.

Eusko Jaurlaritzak aurrekontu saldo negatiboa du; positiboa Aldundiek eta Tokiko Entitateek. Jaurlaritzak 509 milioiko saldo negatiboa du, 2014an baino 61 milioi gutxiago. Hiru lurraldeetan saldo positiboak; okerrera, halere, Araba, 11,7 milioi gutxiago; eta Bizkaia, 153,7 milioi gutxiago. Gipuzkoak hobera egin du 37,4 milioitan.

Euskal Administrazioetako zor bizia, 10.948,9 milioi 2015eko abenduaren 31n. 2015eko pasibo berriak, 1.482,8 milioi; amortizazioak 1.001,5 milioi.

2015eko zor biziaren %75,1 Jaurlaritzarena da; Bizkaiak %13,0; Gipuzkoak %6,0; Arabak %5,8.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2015

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	14.949.370	8.779.684	2.456.934	7.469.309	4.792.879
GASTU ARRUNTAK	13.829.336	8.662.277	2.272.605	6.953.769	4.490.121
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.120.034	117.407	184.329	515.540	302.758
KAPITAL SARRERAK	180.096	127.192	13.961	42.829	49.124
KAPITAL GASTUAK	1.402.232	754.002	113.629	342.882	244.729
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIARIOA	-102.102	-509.403	84.661	215.487	107.153
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 15-12-31)	10.948.962	8.227.242	629.764	1.431.247	660.709

Iturria: EUSTAT. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62